



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

32. Ordenantza **Enpresak sustatzeko eta horiei laguntzeko Ekonomia** **Garapeneko Alorrak egiten dituen prestakuntza-ekintzengatiko** **prezio publikoa**

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 44. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, prezio publikoa ezarri da Ekonomia Garapeneko Alorreko langileek, enpresen sustapenerako laguntza gisa, etengabeko prestakuntzako ekintzak antolatu eta kudeatzeko egiten dituzten lanengatik.

II. ORDAINDU BEHAR DUTENAK

2. ARTIKULUA

Ekonomia Garapeneko Alorreko langileek, Udalaren baimenarekin eta enpresen sustapenerako laguntza gisa, etengabeko prestakuntzako lanak egiten dizkieten pertsona edo erakundeek ordaindu behar dute ordenantza honetan araupetutako prezio publikoa.

Langabezian dauden pertsonak ordaintzeko betebeharretik kanpo geratzen dira.

III. ZENBATEKOA

3. ARTIKULUA

Kostu egozgarrien aldakortasun handiaren ondorioz, egingo den edozein prestakuntza-ekintzatarako prezio jakin bat ezartzea zaila denez, gehieneko eta gutxieneko prezioak ezarri dira, prestakuntza-ekintza motaren arabera:

PRESTAKUNTZA-EKINTZA BATEN GUTXIENKO PREZIOA

3,62 €/ orduko/ikasleko.

PRESTAKUNTZA-EKINTZA BATEN GEHIENKO PREZIOA

63,40 €/ orduko/ikasleko.

Beraz, etengabeko prestakuntzako ekintzak egiteko ezarritako prezio publikoak 3,62 € eta 63,40 € bitartekoak izan daitezke orduko eta ikasleko.

STEAM/Tailer teknologikoak

Tasa komuna: 31,40 € tailerreko

Astetik gorako iraupena duten jarduerak: 36,62 €astean

IV. KUDEAKETA ETA BILKETA

4. ARTIKULUA

1. Ordenantza honetan araupeutako prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua hasitakoan sortuko da.
2. Ordaindu behar duen pertsonari likidazioa aurkezten zaionean ordainduko da prezio publikoa.
3. Udal Administrazioak bankuko helbideratze sistema ezarri ahal izango du prezio publikoa ordaintzeko, ordaindu behar duen pertsona ados agertuz gero.

V. AZKEN XEDAPENA

Ekonomia Garapeneko Enpresen eta enpleguaren sustapenaren laguntzarako egiten diren etengabeko prestakuntzako ekintzen prezio publikoa araupeutu duen ordenantza hau 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin-betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249. alean argitaratu eta gero, eta indarrean egongo da harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.